




adoretsu kementsua, ausarta	«—Neska adoretsua zara zu.»	(20)
ahitu ahuldu	«...Izaratik altxatu eta ondoren ahiturik berriro erori zen ukabila adierazi zuen urduri amak.»	(146)
akitu nekatu	« Akituta etzan zen berriro sukaldeko sofan, eta igerian ihes egin zuten ahatetxoetara begiratu zuen gora.»	(28)
akordu oroipena	«Gabyren akorduan , betidanik ezagutu zuen beldurra.»	(41)
altzo magala	«Aulkiaren ertz-ertzean eseri zen Gabu, eskuak altzoan tolesturik.»	(49)
amarru engainoa, azpikeria	«Beti amarru berriak erabiliz»	(159)
amazulo amakoia	«Benetako amazulo hauxe!»	(12)
amildu erori	«...besaulkian amilduta zegoen aita, zapiak bekokitik izerdia xukatzen.»	(69)
antzo bezala	«...bere galdera xamurra, garrasi bat antzo , airean geratu zen zintzilik.»	(50)
apatiko geldoa	«...ur beroz betetako ur-askan sartu behar zuen haur apatikoa ...»	(62)
arasa ontzitegia	«Sukaldeko goiko arasan zegoen amak etxerako zeukan dirua.»	(82)
arbasta ezpala	«Sasi eta arbasta bakoitzaren ostean aita ikusten zuen...»	(89)
arre nabarra	«Elur maluta urri batzuk zebiltzan hegan, teilatu arreak , kale zikinak eta hondakin pilak zuriz estaliak.»	(46)
arreo ezkontza arropak eta gauzak	«Hiru urte barru ezkonduko gara, ordurako Marthak prest edukiko du arreo ...»	(63)
aska ura biltzeko tokia	«Ontziek zarata egiten zuten, urak plast egiten zuen askan eta aitak estutu eta zapaldu egiten zuen bere aluaren inguruan.»	(23)
atorra lo egiteko alkandora luzea	«Goiko ohetik lerratu zen behera Gaby eta neguko berokia jantzi zuen atorraren gainean...»	(6)
aurki laster	«... aurki hamasei beteko ditut eta azkenean amak baietz esan dit.»	(106)
azpil erratilua	«Ellirentzat ur garbia berotu eta zeramikazko azpil batean isuri zuen.»	(34)
aztoramendu larridura, estutasuna	«Horstek ez zion inondik ere igarri behar bere aztoramenduari .»	(109)
baliatu probetxatu	«Pentsa ere ezin daitekeen aukera oro baliatzen zuen aitak...»	(161)
barau-egun jan gabeko eguna	«...Gabyri gogorra iruditzen zitzaion bere barau-eguna .»	(26)
bare lasaia	«Une batez bare geratu zen aita eserita, beste behin tira egin zion zigarroari...»	(92)
bekozko betoskoa, aurpegikera txarra	«...esan zuen beste neskatilaren amak, eta bekozkoa jartzen zion bere alabari.»	(20)
benaz benetan, egiaz	«Oso benaz pentsatu behar zen horretan, ardien bee, txilin eta dizdizetan.»	(102)




dardarti dardarati, ikaratua	«Zutik geratu zen ama eta hatz dardartiez ebaki zuen azala.»	(7)
ebano Gineakoegur mota	«Eduerne Zuri bezalakoa, elurra bezain zuria, ebanoa bezain beltza.»	(7)
ekidin saihestu	«...aitarekin bakarka egotea ekiditen zuen erabat...»	(159)
erremuska purrustada	«Bere urdailak otso goseti batek bezala erremuska egiten zionean, begiak itxi eta otoitz egiten zuen...»	(27)
errukarri gupidagarria	«Su-hiltzeak, polizia, Jainko maitea, Malsch andere errukarria .»	(45)
eskuare arrastelua	«Baina bere indarrak ez ziren aski belarra jasotzeko, eta eskuarea gero eta astunagoa egiten zitzaion.»	(59)
estraperlo merkatu beltza	«Aste batzuk geroago egiazko ohe bat inguratu zuen osaba Malschek estraperloan , eta amaren gelan ipini zuten.»	(11)
gainazpiratu iraulita jarritakoa	«Achimek ere jaso zituen galtza berriak, armadako beroki gainazpiratu batez eginak.»	(15)
galpar gangarra	«Ile-apaintzailearengana eraman zuen Achim osabak eta oso motx moztuarazi zion bere galpar ederra...»	(12)
galtzarbe besapea	« Galtzarbeetatik oratu zion eskailerak igotzen zituzten bitartean.»	(95)
gantza urdaia	«...urdaiazpiko xamurra, lukainka keztatua, gurina, gantza , ondoan urrekoloreko tipula erre eta ogi egin berri usaintsua.»	(59)
garztailu urezatzeko tresna	« Garztailu batez estropezu egin zuen.»	(85)
gelari geletako zerbitzaria	«Bigarren gelari gisan izena eman zuen merkantzi ontzi batean eta amak baiezkua eman zion joateko.»	(70)
hantura handitua	«...zure aurpegia hotzetan edukitzen baduzu, azkarrago desagertuko zaizkizu hanturak .»	(123)
hatsankatu xuxurlatu	«Ez dizut ezer egingo, ezertxo ere ez, zaude lasai hatsankatu zion belarrira.»	(74)
hatsantu xuxurlatu	«Erotuta zaude hatsantu zen aita-. Utzi ni bakean, ero horrek!»	(69)
hesitura Esparrua	«Bakarrik esertzen zen eta arantzazko hesitura bat sortu zen bere inguruan...»	(40)
ile-xerlo adatsa	«Gabuk ile-xerlo bat kiribildu zeun bere hatzen artean eta baietz egin zuen...»	(98)
imintzioka keinuka	«...armairuan imintzioka , ohepetik begia klikatuz, leihotik barreka eta keinuka...»	(89)
inguratu bildu, eskuratu	«Aste batzuk geroago egiazko ohe bat inguratu zuen osaba Malschek estraperloan, eta amaren gelan ipini zuten.»	(11)
iseka egin burla egin, trfa egin, ihakindu	«"Nekatuta nago, anton; buruko mina daukat, anton" iseka egiten zion aitak.»	(43)
iskanbila astrapala	«Orduan ama erori egin zen eta izugarritzko iskanbila sortu zen.»	(7)
izulaborri beldur-ikara sakona	« Izulaborria gizon maitakor batek bere maletan erakusten zuen panpina triskilatua arean.»	(41)
keru kiratsa	«Hauts eta izerdi keru nahasi bat zabaltzen zen kiroldegi luzean.»	(104)



kirio nerbioak	«Bere medikuak dio kirioek eragindakoa dela.»	(54)
kitsch gustu txarrekoa	«...aurreko astean dagoeneko ikusia zeukan filma. Benetan kitscha .»	(133)
kulero braga	«Aitaren hatzak bere kuleroetan lerratu ziren eta alua ferekatu zioten.»	(22)
lanabes lan egiteko tresna	«...baratzeko lanabesak , agurrezko aulki bat, botilak, kaxak.»	(85)
lausengatu htzi politik esan	«Amak lausengatzea nahi zuen, eta amak esan ere esan zion...»	(20)
legen azaleko gaixotasuna	«Legen min bat sortu zitzaion eta, goizero eta gauero, usain txarreko ukendu batez igurtzi behar izaten zuen.»	(48)
lerratu irristatu	«Goiko ohetik lerratu zen behera Gaby eta neguko berokia jantzi zuen atorraren gainean.»	(6)
liskar istilua	«...etxe berriko horma mehetan zehar hitzez hitz pasatzen zen liskarra .»	(43)
listu txua	«Gogorra zegoen, baina listu asko gaineratuz aral gogorra ore bihurtzen zen.»	(5)
lizun zikina	«Gabyk damu zuen bihotz-bihotzez lizun izana, hala deitzen zitzaion horri...»	(27)
loki adegia	«... lokian ferekatu zizkion, zain urdin txiki batek pilpiratzen zuen lekuan.»	(79)
losintxatu lausengatu	«Astetan eta astetan losintxatu zuen erragali txikiak eginez: txokolate tableta bat, xaboia, lore bat.»	(163)
lukainka txorizo mota bat	«...urdaiazpiko xamurra, lukainka keztatua, gurina, gantza, ondoan urrekoloreko tipula errea eta ogi egin berri usaintsua.»	(59)
mahuka arropan besoa sartzeko tokia	«Burlati agindu zion Achimi mahukak jaso zitzala.»	(12)
malapartatu madarikatua	«Bere beso eta hanka malapartatuei begiratu zien Gabyk. Alde guztietan zeuzkan zolda gorri-beltzak...»	(91)
maluta elur tanta	«Elur maluta urri batzuk zebiltzan hegan, teilatu arreak, kale zikinak eta hondakin pilak zuriz estaliak.»	(46)
marmarikatu marmar egin	«—Handiegia naiz ni siesta egiteko — marmarikatu zuen Gabyk.»	(20)
marrantatu katarroak hartuta	«Joan atzera, atzeko eserlekuara —esan zion aitak eta ahotsak marrantaturik zirudien.»	(92)
menia baimena	«...aitarekin tratua eta menia moduko bat zeukan garai hura izan zela onena.»	(102)
mirrika negar leuna	«Bat-batean Mark hasi zen negar mirrika ondoko gelan.»	(81)
motots adatsa	«...leihoan emakumezko funtzionario bat, buruan motots horail bat duela.»	(87)
murru harresia	«...soineko beltz luze bat jantzi eta inguruan murru garaiak dituen etxe batean bizi.»	(33)
nano gizaki txikiak	«...ipuinak kontatu ohi zizkion, beldurrezkoak, eta berak lurrazpiko nanoei beldur handiagoa zien...»	(18)
ohol egurra	«Gany ere nebaren ondoan belaunikatu zen, ohola belautaren kontra sentitu zuen...»	(46)



ohoratu omendu	«Zeure gurasoak errespetatu eta ohoratu behar dituzu.»	(64)
okaztagarri higuingarria	«Nazkagarria eta okaztagarria zen, bai; baina jasan zitekeen, irentsi zitekeen.»	(103)
olata gaileta modukoak	«... olata arrosak, horiak eta berde mentadunak, konturatu gabe goxo-goxo mihian desegiten zirenak.»	(9)
onbera onutsa	«Ez ote zitzaion orduan aurpegitik desagertuko orain zeukan irribarre onbera hura?»	(50)
onetik atera senetik irtenarazi	«Diruagatik seguru bere onetik ateratzeraino haserretuko zela.»	(83)
oratu harrapatu	«Galtzarbeetatik oratu zion eskailerak igotzen zituzten bitartean.»	(95)
orbaindu ebakia	«Suge gorrien gisan, orbaindu eskumuturrak inguratzen zizkieten.»	(47)
orban zikinunea	«Sabaiko argiari eragin zion Achimek, eta atearen aurrean zabaltzen zihoan orban ilunari erreparatu zion.»	(44)
ore masa	«Gogorra zegoen, baina listu asko gaineratuz aral gogorra ore bihurtzen zen.»	(5)
orobat berdinki	«...denek laguntzen zuten; soroetan uzta biltzen eta orobat etxean.»	(59)
ostu lapurtu	«Aitak arrazoi zuen, noski, ez dela ostu behar, baina Achimek esaten zuen kartera aurkitu egin zuela...»	(18)
papar bular	«Ezkerreko paparra hautsi zen Achimen atzamarren artean.»	(69)
pikortsu bikorra, garaua	«Handia zen Norbert, argala eta pikortsua .»	(151)
pilparatu taupadak eman	«...lokian ferekatu zizkion, zain urdin txiki batek pilpiratzen zuen lekuan.»	(79)
pinporta biribila	«Haren sudur pinporta , haren aho beti busti eta galdetzeko irekia, haren tolesdura gizenak kokotean.»	(79)
sareta sareztadura	«Ilunalde horretan belarri handi bat ikusten zuen, zurezko saretari itsatsita.»	(68)
sastada ziztada	«Alboko sastadek arnasa eragozten zioten...»	(82)
sastraka sasia	«Ordubete osoz ibili zitzaizkion gizonak deika, eta linternaz bilatu zuten sastraka eta belar antean.»	(62)
sor eta lor harrituta	«Barnetik sor eta lor sentitzen zen...»	(80)
sorgortu liluratu	«Bere izua sorgortua zegoen, erregalien, giro onaren eta amaren ongizatearen truke.»	(103)
soslai itxura	«Ahotsa bakarrik ezagutzen zuen Gabyk, haren soslaia , ordea, bere begien aurrean zabukutzen ziren laino...»	(173)
triskilatu moztu	«Izulaborria gizon maitakor batek bere maletan erakusten zuen panpina triskilatuaren aurrean.»	(41)
txera balakua, laztana	«Gabyren txerak irmotu egin zuen eta bere buruari sendotasuna eman.»	(163)
txirikorda ilekorda	«...berak segituan egin ahal izan zuelako, eta txirikorda lodia zeukan ondoko neskatilak, izugarri lotsatuta, ezin zuelako.»	(20)



txokatu harrituta	«...buruari eragin zion amak txokatuta .»	(36)
txukutxuku txupetea	«Batzuetan esnatu egiten da eta. Orduan eman bere txukutxukua .»	(78)
uhale hedea	«Goraino betetako motxila bat eta sikaz eta uhalez lotutako maleta bat zeuzkan ondoan.»	(9)
ukuilu bazterra, txokoa	«...haur txiki bat bezala, baina haren ukuilua sugarren ostean zegoen.»	(7)
unatu nekatu	« Unaturik erorita zeuzkan besoak, malkoak isuriz begiak.»	(69)
urruma marruma	«Bai urruma txiki bat egin zuen.»	(52)
uzta soroetatik fruituen bilketa	«...denek laguntzen zuten; soroetan uzta biltzen eta orobat etxean.»	(59)
xamurkiro goxotasunez	«...baina segituan Gabyren besarkadatik xamurkiro askatu zen.»	(30)
xendra bedeska	«...baina segi egiten zion Elbari aurrera, xendra makur eta kale hautsietan barna...»	(84)
xuxurlatu murmuriatu	«—Nire aingerutxoa xuxurlatzen zion—. Guztiz berezia zara zu —eta musu ematen zion.»	(13)
zabuka alderoka	«Gaby haren besoetan erori zen zabuka .»	(125)
zaputz muxin egin	«Gaby bere atentzioekin pozten zelako, zaputz egiten ez zielako.»	(163)
zapuztu dezepzionatu	«Amak zapuztu egiten zuen, gero eta garbiago sumatzen zuen hori.»	(60)
zaragar azaleko gaixotasuna	« Zaragarra daukala dirudi, —entzun zion Gabyk xuxurlatzen.»	(48)
zekor zezen gaztea	«Zure Holgerrek zekor maitemindu batek bezala begiratzen dizu.»	(35)
zentzatu zuzendu	«Eta erreformatarioak ere badaude —gaineratu zion emakumeak—. Zentzaten ez direnentzat.»	(91)
zerion isurtzen zitzaion	«Christa oso polita zen, freskotasuna eta lasaitasuna zerion .»	(60)
ziba tronpa	« Ziba bat bezala ohean birka ari zela uste zuen Gabyk.»	(96)
zolda zahia	«Bere beso eta hanka malapartatuei begiratu zien Gabyk. Alde guztietan zeuzkan zolda gorri-beltzak...»	(91)
zotinka negarrez	«Ohean zegoen, ama, berarekin. Ikusi egin dut zotinka zegoen—. Nire Christarekin.»	(69)